



2021/2022 denboraldia

30. ZIRKULARRA

2. URTEKO ALEBIN MUTILEN AURRETIKO FASEKO LEHIAKETA

AURRETIKO FASEAREN ANTOLAKETA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Futbol Federazioaren laguntzarekin eta jokalarien heziketa prozesuaren kalitatearen maila igotzeko interesa duen Real Sociedad klubaren lankidetzarekin, Gipuzkoako eskola kiroleko jardueren programaren barnean dagoen bigarren urteko alebin mailako lehiaketa antolatu du.

1) KLUB PARTAIDEAK

GRUPO 1 MULTZOA	GRUPO 2 MULTZOA	GRUPO 3 MULTZOA
1 HONDARRIBIA F.E	1 BETI ONA C.D.	1 ANTIGUOKO K.E.
2 BEHOBIA C.D.	2 PASAIA K.E.	2 ARRUPE CHAMINADE C.D.
3 MARIÑO C.D.	3 TOURING KE	3 ITELTEGI DE DONOSTIA C.F.
4 SAN MARCIAL C.D.	4 TRINTXERPE C.D.	4 MARTUTENE K.E.
5 OIARTZUN K.E.	5 ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE	5 MUNDAIZ S.C.D.
GRUPO 4 MULTZOA	GRUPO 5 MULTZOA	GRUPO 6 MULTZOA
1 KOSTKAS K.E.	1 OSTADAR S.K.T.	1 AIZKORRI F.T.
2 INTERNACIONAL C.D.	2 TEXAS LASARTEARRA C.F.	2 BEASAIN S.D.
3 AÑORGA K.K.E	3 URNIETA K.E.	3 BILLABONA K.E.
4 LENGOKOAK K.E.	4 HERNANI C.D.	4 TOLOSA C.F.
5 VASCONIA C.D.	5 DANENA K.E.	5 LAZKAO K.E.
	6 ORIOKO F.T.	6 ORDIZIA K.E.
GRUPO 7 MULTZOA	GRUPO 8 MULTZOA	



1 ZARAUTZ KE	1 ALOÑA MENDI K.E.
2 EIBAR S.A.D.	2 ARETXABALETA K.E. UDA
3 EIBARTARRAK F.T.	3 ILINTXA S.D.
4 ZUMAIAKO F.T.	4 UROLA K.E.
5 URKI C.D.	5 ARRASATE C.D.
6 LAGUN ONAK C.D.	

2) LEHIAKETA SISTEMA

Errendimenduko ibilbideko aurretiko fasean jokatzeko 43 taldek eman dute izena. Talde hauek 8 multzotan banatuko dira: 5 taldeko 5 multzo eta 6 taldeko 3. Multzoak egiteko hurbiltasun geografikoa hartu da kontuan. Txapelketa hau 2 fasetan jokatu da:

1. FASEA: LEHIAKETAREN ANTOLAKETA ETA SAILKAPEN IRIZPIDEAK

COVID-19a dela eta, zuhurtziazko eta erantzukizun sozialeko irizpideak kontuan izanda, fase hau **EZ DA KONTZENTRAZIO MODUAN JOKATUKO**; aitzitik, egutegian etxeko talde gisa agertzen den klubaren zelaian jokatu da.

Partidak egun hauetan jokatu dira (beti igandeetan):

- 2021/10/31
- 2021/11/14
- 2021/11/28
- 2021/12/19
- 2022/01/09

Federazioa multzo bakoitietan atsedean hartzen duten taldeekin kontaktuan jarriko da, nahi izanez gero, lagunarteko partida jokatzeko.

Multzo bakoitzeko lehen hirurak sailkatuko dira (3x8 = 24), eta 6 taldeko 4 multzotan banatuta errendimenduan hasteko lehiaketa jokatu dute.

Puntuekin berdinduz gero, hauek izango dira sailkapen-irizpideak:

- Lortutako eta jasotako golen arteko alderik handiena, txapelketako partida guztiak kontuan hartuta.
- Gol gehien sartu dituen taldea, lehiaketan lortutako guztiak kontuan hartuta.



- Euren artean jokaturako partiden emaitzak.

2. FASEA: AURRETIKO FASEAN SAILKATU DIREN ETA ERRENDIMENDUAN HASTEKO LEHIAKETAN JOKATU DUTEN TALDEENTZAKO

Errendimenduko hastapena jokatzeko sailkatu diren 24 taldeek, Gipuzkoako Foru Aldundiak gonbidatuta, aukera izango dute bertan lehiatzeko. Horretarako, eskola kiroleko aplikazioan dagokion ibilbidean inskribatu beharko dira eskola kiroleko aplikazioaren bitartez. **Klubei lana errazte aldera, Gipuzkoako Foru Aldundia arduratuko da aplikazioan izen-emateak egiten.** Errendimenduan hasteko lehiaketa, aurretiko fasean aritu diren jokalariek berberak inskribatuko dira (beti ere gehienez 16). Sailkatu gabe geratu diren beste talde guztiek, hobekuntza jardueretan parte hartuko dute.

Egoera soziosanitarioaren arabera, fase hau **kontzentrazio moduan** eta **txapelketaren egutegian urdinez agertzen diren** klubaren zelaian jokatu ahal izango da. Urdinez agertzen ez bada, fase hori egutegian etxeko talde gisa agertzen den klubaren zelaian jokatu da, lehenengo fasean bezala.

Sailkatutako 24 taldeek, 6 taldeko 4 multzotan banatuta, hurbiltasun geografikoko irizpideen arabera, honako egun hauetan jokatu dute fase hau (beti igandeetan):

- 2022/01/16
- 2022/01/30
- 2022/02/13
- 2022/03/06
- 2022/03/27

Fase hori amaitzean, multzo bakoitzeko lehenengoek, zozketa egin ondoren, zelaia neutralean jokatu dituzte finalerdiak 2022ko apirilaren 10ean, eta irabazleek finala jokatu dute eta galtzaileek 3. eta 4. postuak, hurrenez hurren, zelaia neutralean, 2022ko maiatzaren 8an.

Lehen hiru sailkatuek Gipuzkoako ordezkariak izango dira Alebilen Euskadiko Jokoetan.

Sailkapen postu bera lortu duten gainerako taldeek (4 bigarrenengo, 4 hirugarrenengo, 4 laugarrenengo eta horrela hurrenez hurren), lehen sailkatuentzat adierazitako irizpideak jarraituz, aurrez zozketa eginda jokatu dute, zelaia neutralean. Finalerdiak 2022ko apirilaren 10ean, eta horien irabazleek 5. eta 6. postuak jokatu dituzte; galtzaileek, berriz, 7. eta 8. postuak, hurrenez hurren, 2022ko maiatzaren 8an, eta horrela hurrenez hurren, 1.-24. sailkapen ordena osatu arte.



3) TXAPELKETA OSAGARRIAK

Teknifikazio jardueren barnean **Real Sociedaden Gabonetako Txapelketa** dugu. Txapelketa hau **Zubietako instalazioetan egingo da Gabonetako oporretan.**

4) JARDUEREN BATERAGARRITASUNA

Jarduera hauetan aritzeko ezinbestekoa da ikasleek ikastetxeetako eskola kiroleko programan izena ematea eta parte hartzea.

5) LIZENTZIAK

Talde bakoitzeko lizentziak gehienez 16 izango dira. Hala ere, 2021eko abenduaren 1a baino lehenago altak eta bajak konpentsatu daitezke. Tramite hauek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako Eskualde Bulegoetan egin daitezke.

Aurretiko fasean jokutzen diren partidetan, taldeek Kiroletako Eskualde Bulegoetan sinatutako triptikoa aurkeztu beharko dute. Berau eskola kiroleko aplikazioan lor daiteke.

Urtarriletik aurrera, errendimenduan hasteko lehiaketan, jokalaria bakoitzak nor den ziurtatzen duen lizentzia eskolarra aurkeztu beharko du. Lizentzia honek **jokalariaren argazkia** eramango du. Lizentzia hauek Kiroletako Eskualde Bulegoetan jasoko dira. Eskualde Bulegoak jaso ahal izateko, ezinbestekoa izango da **gurasoek sinatutako baimen dokumentua** aurkeztea. Berau Eskola Kiroleko aplikazioan lor daiteke.

Lehiaketako lehen jardunalditik, taldeko kideak identifikatzen dituen lizentziarik edo egiaztagiririk ez aurkezteak partida galtzea ekarriko luke.

6) ADINA

2010ean jaiotakoak soilik.

7) JOKALARI KOPURUA ZELAIAN

Gehienez 8 jokalaria, gutxienez 6.

Gutxienerako kopurua lortzen ez bada, behar diren jokalaria lortu ez dituen taldeari partida galdutzat emango zaio, nahiz eta partida jolasteko aukera egon.



8) IRAUPENA

Partidek **60 minutuko iraupena** izango dute, **20 minutuko 3 zatirekin** (azken zatian aldaketa libreak izango dira). **Bigarren zatian, aurrekoan parte hartu ez duten ikasleek parte hartu beharko dute. Hala ere, aldatutako jokalariek bigarren zatian ere parte hartu dezakete, baina lehen zatian jokatu duten jokalariaik ordezkatzuz bakarrik.**

9) DEIALDIA

Taldea osatzen duten jokalarien %75ek deialdian eta partiduan egon beharko dute. Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partidua galdutzat emango da salatua izan den klubak aurkezten dituen ezinbesteko arrazoiak behar bezala justifikatuak eta frogatuak izan ezean.

10) BALOIA

Baloia 4 zenbakiduna izango da.

11) ZELAIAREN ETA ATEEN NEURRIAK

Zabalean jokatuko da, eta luzera eta zabalera zelai bakoitzak dituen neurrien arabera izango dira. Dena den gutxi gorabehera ondoko neurriak izango dira: jokalekua 65 eta 50 metro arteko luzera eta 45 eta 30 metro arteko zabalera duen angeluz uzena izango da. Ateak 6 metro luzeran (zutoina) eta 2 metro altueran (langa) izango du. Neurri hauek kontuan izanda, jokalekua, salbuespen bezala, zelaiaren luzera aprobetxatuz marraztu daiteke.

12) PENALTI EREMUA

Ateko marrarekiko bi lerro elkarzutak margotuko dira, ateko zutoin bakoitzetik 9 metrotara. Aipatutako lerroak zelai jokoaren barnealdera 9 metro sartuko dira eta ateko linearekiko lerro paralelo batekin elkartuko dira. Lerro hauek eta ateko lerroak egiten duten eremua, penalti eremua izango da.

13) PENALTI PUNTUA

9 metrotara eta erdian markatuko da penalti puntua.




14) ATE EREMUA

Penalti eremua bezala, baina ateko zutoin bakoitzetik 3 metrotara.

15) JOKOZ KANPOKO EREMUA

Ateko lerrotik 13 metrotara.



16) ASEGURUA

Eskola arteko lehiaketa bat denez, Gipuzkoako Futbol Federazioari **ez dagokio laguntza medikuaren estaldura**, beraz lesioren bat gertatuz gero, **Gizarte Segurantzza Publikora** edo jokalariaren ama edo aitak duen aseguru pribatura joan behar dute.

17) EPAILEAK

Epaile federatuek zuzenduko dituzte partidak. Zenbatekoa (33 euro) lehiaketako egutegietan etxeko talde gisa agertzen diren klubek ordainduko dute. **Gipuzkoako**



Futbol Federazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren babesean, zenbateko horren zati bat diruz lagunduko du.

18) GAINONTZEKO ARAUAK

Gainerako arauak hamaikako futbolerako ezarritako joko arauen berdinak izango dira.

19) DIZIPLINA ARAUDIA

Eskola kirolari buruzko 2013ko uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUAREKIN bat etorritz, Gipuzkoako Foru Aldundiak eginkizunak eskuordetzearen ondorioz diziplina ahalmena honela gauzatzen da:

- a) Lehen auzialdian, lehiaketen garapen teknikoaz arduratzen den kirol federazioko diziplina batzordeak.
- b) Bigarren eta azken auzialdian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak. Honen ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari eta, arau juridikzionaleri jarraiki, horien aurkako errekurtsioa aurkeztu daiteke.

Donostia, 2021eko urria

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General